

# **XERAZADEREN MENDEKUA**



© Xabier Galarreta

Xerazadek Xariar sultanari begiratu zionean, azken honek lepoan zitzada moduko bat sentitzea iruditu zitzaion. Izan ere, Xerazadek erakusten zion itxurazko adeitasunaz askoz harantzago zihoan sentimendu hark zerikusi handiagoa baitzeukan sugearen “adeitasunarekin” sultanak hartaz espero zituen sentimendu amultsu eta maitasunezkoekin baino. Gizakiok itsuak gara, ordea, bai besteek diguten mesprezurako bai besteek diegun erdeinurako. Eta sultana, sultana izan arren, ez zen salbuespen.

Xerazadek bere 1.001 ipuina kontatu berria zion, 1.001 gauetan zehar bere bizia luzatu zion kontakizun luze eta etengabeari ustekabeko amaiera eman behar ziona. Hala uste zuten biek, nola Xerazadek hala Xariar sultanak –amaiera hura noraino izango zen bestelakoa bietako ezeinek igartzen ez bazuen ere.

Xerazade eder, maitagarri, irudimentsu eta ongi hezia. Xerazade ideial, prototipo eta eredugarria. Xerazade: sultan anker eta bihotz gabe baten bihotz izozturaino iristeko gauza zena, herriko neskatxa askoren biziak salbatzea lortu zuena (nahiz-eta ehunka neska gazterenak, zuloan bukatuak zirenak berak uhalei heldu arretik, heriotza ergel eta ekidinezinean betiko gaztigaturik geratu), baina hala eta guztiz ere, samintasuna arintzeko balio ez ziona, asko baitziren bere

familiako eta lagunarteko giroan sultanaren hiltegi-jauregitik igaroak zirenak, etxetik malko artean indarrez eraman eta sekula berriro ez bizirik ez hilik ikusi ez zituztenak.

Orain, Xariar sultanaren burusoilean atxiki zuen soa. Okaztagarria zen. Gizontxo ergel eta anker hura oka egiteko modukoa zen. Zenbat odol isurarazia zuen inongo arrazoirik gabe; “Berekoi higuigarri halakoa” pentsatu zuen Xerazadek berekiko, sufrimendua suzko burdin batez idatziko zion gustura asko haren larru-azaletako milimetro koadro bakoitzean, miniaturazko izen-labirinto bat idatziko lioke –hartarako aukera izanez gero– hark eraildako neskata guztien izen-abizenekin, ehunka edota beharbada milaka zorigaizto haien guztien izenak suz grabatu, bai eta haren bihotz momifikatuan grabatu ere, ikas zezan lezioa!, egiazta zezan besteren mina eta berarena min berberak zirela, antigoaleko min zahar hura bera, gizakiena eta animaliena, martiriarena eta etsaiarena, denak berdinak, denak minean eta sufrimenduan berdinduta.

Xariar erregeak kartazal dotore bat helarazi zion eskura, distrautuki, mahats-ale batzuk gogorik gabe ahoan sartzeaz batera, eta keinu batez eman zion aditzera irakur zezan, eta Xerazadek agindua –aginduak baitziren beti harengandik jasotzen zituen hitzak– arnasa hartzeko imintzioa egin zuenean, sultanak hatz erakuslea jarri zuen Xerazaderen ezpainetan, ozenki ez baina bere baitarako irakurri

behar zuen eta. Xerazadek zirgitegin egin zuen Xariar sultanaren hatza bere ezpainetan sentitzean, baina hain leunki, erabat oharkabea igaro baitzitaion sultanari –ohi bezala, Xariar sultana ez baitzen inoiz ohartzen Xerazaderen mesprezuzko imintzioez, gorrotozko begiradez, gogoz zein gorputzez jaurtitzen zizkion pozoiez; aitzitik, Xerazaderen jarreran berekiko begiramen, adeitasun, mendekotasun eta are, maitasun itsua ere ikusi uste izaten zuen gizarajoak.

Xerazadek eskutitza irakurtzeari ekin zion, eta sultanaren eskribatzaile eder, bihotz oneko eta pergaminozaleak –zeinarekin oheratzen baitzen ahal zuen guztietan, arriskuari erronka egiten zioten maitale ausartak baitziren– bere idazkera ezin politagoaz idatzitako lerroak irakurtzeari ekin zion bere aurpegian inongo sentimendurik islarazi gabe. Honela zioen, gutxi gora-behera:

Xerazade maitea,

*“Azkeneko 1.001 gau hauetan higandik erdietsi dudan gozamenak itsutua naukala aitortu beharra dinat, nehoiz pentsatu ez nuelarik emakume batengandik hain hitz ederrak, hain ipuin ongi matazatuak jalgi zitezkeenik. Higandik lortu ditudan laztanak eta gorputz-plazerak ahaztu ere egin gabe, zeren horietaz ere esan behar dinat beste ezein emakumerengandik lortu ez ditudanak direla, eta ikusita sexu-josketa eta ipuin-kontaketa ederrak ez ezik, higandik gizon batek lor ditzakeen*

*mota guztietako bertuteak biltzen dituen ezohiko emakumea haizela, gau batetik bestera hire kontakizunen bitartez atzeratuz joan garen hire heriotza-eguna egutegitik betiko ezabatzeko erabakia hartu dudala jakinarazten dinat; bide batez, hirekin ezkondu eta nire hareneko emazte nagusia hi izendatzeko asmoa tinko hartuta daukadala ere esan beharrean negon hiri, zeinagatik badakidan irudikaezineraino poztuko eta alegeratuko haizela, nire erresumako eta mundu osoko emakumerik zoriontsuen bilakatuko haizela jakitean. Jarraituko dun, hortaz, hire sultanaren oinen aurreko lurrari musu eman ez, eta Jainko ahalguztidunaren nahiaz merezi dudana ordainarekin ni ohoratzen”.*

Xerazadek eskutitza irakurtzetik bukatu zuenean, haren begitarteaz jabetutako dar-dar ñimiñoaz ez zen Xariar sultana ohartu – Xerazaderen umore- eta izaera-aldaketaz eskuarki inoiz ohartzen ez zen bezala, hark aski baitzuen bere buruari kasu egitearekin–. Beraz, eskutitza berriro tolestu, kartazalaren barruan sartu eta sultanari helarazi zion burua beherantz umiliatuz, eta jaiki baino lehen, ohitura sakratuari jarraituz, sultanaren oinen aurreko lurrari musu eman zion, esker oneko eta menpekotasuneko keinutzat – bietara– uler zitekeena. Gero, gela zeharkatu, zuri ederrenaz eginiko mesanotxe bateraino joan eta beste pergamino bat atera zuen bertatik. Eta egindako bide laburra deseginez eta lehengo

keinuak errepikatuz, Xariar sultanari eskuratu zion, beti ere begirada lurrerantz gordez.

Xariar sultanari begia alaitu zitzaion. “Ikus dezagun, ba, ea zer otu zainan, bihurri horri”. “Dena den” gaineratu zuen “ez zekinat zer dudan, baina ardo gehiegi hartu ez ote dugun nago, ikaragarri logura naiz-eta. Ikaragarri kosta zaidan begiak irekita atxikitzea. Hire presentziak berak horditu egiten nain, Xerazade maitea...”.

Xerazadek idatzi eskutitzeko lehen lerroak irakurri ahala, Xariar sultanaren aurpegian haserre biziko espresio bat margotuz joan zen, berehala ikara bilakatu zitzaiona. Honela zioen Xerazaderen gutunak:

*“O, Xariar sultan hori:*

*Hitzik ez dut berorri esateko zeinen sultan kaxkarra izan zaren! Zeren, nolatan merezi ote dezakeen sultan izendapenak bere erresumako neskatarik zoragarrien, amarrugabeen eta xarmantenak hiltzen jostatu den inork, berorrek hain zuzen egin duen bezala! Benetan uste ote zenuen nire ipuinetan, nire laztan fereka eta musuetan zukanako maitasunik, begiramenik egon zitekeenik...? Maitasuna eta begiramena, borrero anker eta koldar bati? Inoiz ez! Inoiz ez! Nire ahizpa maitagarriak banan-banan etxetik eramanak, zure jauregian orgiazko gau batean lotsaz erabiliak eta sarraskituak, gure herriko*

*ehunka, milaka familiatan barreiatu duzun minaren minaz ilargia bera gauez ateratzeari uko egiteraino! Eta benetan uste al zenuen zugatik ari nintzela kontakizunetarako nire jainkozko dohainaz baliatzen, zuri –purtzil horri– plazer emateko? Baita zera ere! 1.001 gau izan dira, neskatxa bakar baten odola isuri gabeko 1.001 gau, zeinetan zure ankerkeria blasfemoari itzuri ahal izan diogun, bizi bakar bat salbatzeak gure Ala jainkoarentzako oparirik ederrena zela jakin ba bainekien, baita herritarrik xumeenek jakin ere, bihotz garbitasuna zure erresumako edozein kale eta pobre-auzotan ezaguna baita, berorren jauregi madarikatu eta deabruzko honetan baino”.*

Irakurri ahala, Xariar sultanaren begitartea zurbiltasunaren muga zen, baina ez zen mugitzeko gai Xerazadek azken kopa ardo betearekin batera edaten emana zion eragin izugarri handiko narkotikoa zela-eta, egin zezakeen gauza bakarra eskutitz hura irakurtzez bukatzea zelarik.

*“Mendekuaren ordua iritsia da, o sultan anker hori. Presta zaitez Ala handiari kontuak ematera, egizu otoitz Hark –Handietan Handienak– bere urrikalmenduarekin salbatu ahal izango zaituen agian, nigandik ez baituzu horren antzekorik espero behar, zigorra baizik: 1.001 aiztokada, gau ikarazko guzti hauetan salbatzea lortu ditudan neskatxa maite haien guztien izenean, modu basatian erailtzeko agindu zenuen erresumako neskatxarik xarmagarrien izenean,*

*zeure herrian erein duzun samin eta gorroto  
biziaren izenean. O, Xariar sultana, har beza  
berorrek berorren bekatu lazgarrien ordaina, bai  
beronentzat bai niretzat azkeneko gaua den  
honetan egingo dugun gauza bakarra horixe izango  
baita: 1.001 aiztokada nik berorri eman eta 1.001  
aiztokada zuk nigandik hartu. Ipuin-kontaketa  
bukatua da. Izan bedi Jainko Ahalguztidunaren  
borondatea”.*

Xerazadek kandela guztiak itzali zituen eta narkotikoek paralizatuta zeutzan izu-laborriz begiratzen zion Xariar sultanarengana urrats geldoz baina irmoz aurrera eginez, aizto ikaragarria inarrosi zuen airean, fiertasunez.